

JON LOPATEGI NIRE GOMUTAN

Norbait ondo landuriko ortu joria, landare guri-guriz betea utzita bizion ondotik doanean, komunikabideetan be halako oihartzuna izaten dau. Harek bere bizian eginikoa zelan edo halan ordaintzeko, esker on, aitorpen eta maitasuna agertu nahi izaten jakoz azken agurrean. Merezimenduen ondoan aldarritxu bat baino ez da izango, baina egoki eta bidezko da aldarritxu hori egitea. Hileta-elizkizun ondoren agertu zan barrero komunikabideetan eta gero isildu ziran guztiak. Bizitzak aurrera egiten dauala esaten da eta berriemaileak egunera egon behar dauala, beti aurrera begira, sortzen diran albisteen harian adi.

2019 honetako otsailaren 7an hil zan Jon Lopategi Lauzika; eguena zan; eta 9an, zapatuan, izan zan hileta-elizkizuna, Muxikako Ariatzako eliza gainez eginda eta kanpoan be beste hainbeste lagun eta gehiago zala. Tristurak jo ninduan eta bihotzean min neban hil zalako barria jakitean. Beti miretsi izan dodan pertsona zan Jon, bertsolari, euskaltzale eta kultura gizon legez estimatua eta hautatua. 1960ko hamarkada ezkeron nintzan haren jarraitzaile. Alfontso Irigoienek eskutik, Bizkaiko txapelketa hareetan, Azpillaga, Mugartegi eta beste gazte batzuekin batera, gailentzen hasi zanetik.

Ahots barria, kezka sozial eta abertzaleen mandataria

Kirolarietan, esaterako, txirrindulariaren, beti izaten da baten bat besteak baino erakarpen handiagoa dauana eta zaleak guztien artean aparte hartzen dabena. Bertsolaritzara etorritik, niretzat eta bertsozale askorentzat, aspaldiko urte hareetan eta

KARMEL



Txapelaren itzala, L. Baraiazarra

Ekialdetik oihu ikaragarria
Interpretaritzaz, B. Montorio
Irakaskuntza bidegurutzean,
P. Baraiazarra
Santiago bideko Euskal kantak,
L. Akesolo



Laszlo Tökes, A. Olea
Etxeberri Ziburukoaren bertso bi
argitzen, L. Akesolo
Kontu-Kontari: A. Urkiza,
N. Uribe Zubia, A. Zubikarai,
Aurre- Apraiz
Letra gozoak: Muniategi, Aurraitz,
Etxeberri, Bidaguren

1990-1

Urtarrila - Epaila
192. Zenbakia

oraintsura arte, Muxikako bertsolari beltzarana izan da idolo hori. Askotan ez da jakiten zehatz-mehatz zergaitik dan. Arrazoi bat baino gehiago egon leiteke horretarako.

Ni neu be ahalegindu nintzan gako horren bila haren biografia idatzi nebanean. Izenburuan bertan emon nahi izan neban argi pixka bat: “Jon Lopategi, bertsozko mezularia”. Izenburu honen inguruan gogoeta eginez, hau agertzen da:

“Liburuaren tituluaz izan ditut neure zalantzak. Idazteari ekin neutsanean, haren dohain azpimarragarri baten bila hasi nintzan neure baitan eta horixe otu jatan. Egia esan, alde asko ditu Jonek azpimarratzekoak. Bizkaiko eta Euskal Herriko bertsolari handienetarikoa da. Bertsolari handiak zerbaitegaitik miresten dira: batzuk, poesiarako daben joeragaitik; beste batzuk, irribarre eragiteko daben dohainagaitik; honeek, dialektikako zorroztasun eta ziriagaitik; hareek arrazoieta hautsieziak izateagaitik... Beste batzuk, ez dakigu zergaitik, baina miretsi egiten ditugu. Halako zerbaite jazoten jatan niri Jon Lopategiaren: ez nekian garbi zergaitik, baina neure gogoko bertsolaria neban. Beharbada, neuk entzutea nahi nebana esaten ebalako. Izan be, Jon Lopategik mezu garbi eta indartsua dau; sasoian sasoikoa eta beti abertzalea”.

Dana dala, bidezko da ingurukoekin zertan edo hartan dogun zorra aitortzea, eta Jon Lopategiaren dohain hori azpimarratzen ni ez nintzan lehenengoa izan. Aurretik Jose Mari Iriondoren testu baten irakurri nebala uste dot, eta guztiz bat nentorrelako, haren biografiaren izenburuan jarri neban. Xabier Amurizak are argi gehiago dakarsku, Jon hil zanean *Berriako* kazetariari erantzunez emoten dituen iritzietan. Hau dinon hango pasarte batzuetan:

– *Zer nabarmenduko zenuke haren ibilbidetik?*

– *Lopategi izan da bertsolaritzak eman duen figurarik handienetako bat. Argia eta kultua zen, ez zen bertsolari eskolagabe bat, eta fenomeno berri bat izan zen bertsola-*

ritzan. Ekarri zuen bertsotan egiteko tankera berri bat, eduki politiko, sozial eta kultural handikoa. Gainera, oso bertsolari oportunoa zen; hau da, bark bazuen dobain bat, edozein gaitan, edozein unetan, ateraldi oportuno bat izateko eta jendearengana iristeko. Eta, Azpillagarekin batera, masak erakartzen zituen Euskal Herri osoan.

– ***Hain zuzen, frankismo garaian lan garrantzitsua egin zuen Azpillagarekin.***

– Oso garrantzitsua. Saiotara joaten ziren nonahi, eta bazekiten gazteria nola bildu. Ausartu egin ziren, eta ez bakarrik ausartu: edukia zeukaten. Jendeak nahi zuen zerbait entzun, eta zerbait baino gehiago ere kantatzen zuten haiek.

– ***Plazara ateratzen zituzten beste batzuk ateratzera ausartzen ez ziren gaiak?***

– Bai, zerbaitengatik zen bura fenomeno masiboa. Frankismo amaieran pizkunde bat hasi zen, olatu handi bat zetorren, eta haiek hartu zuten bertsolaritza, eta olatuaren gailurrean jarri ziren. Forma ematen zioten orduko gose eta egarriari, eta jendeak izugarri estimatzen zuen. Fenomeno berezia eta eroa izan zen.

“Jon Lopategik mezu garbi eta indartsua daukala; sasoian sasoikoa eta beti abertzalea” idazten genduan haren biografian (36. or.). X. Amurizak be ideia bardintsua dakar beste era batera azaldurik, goiko lerroetan ikusi dogunez. *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* biografian luze eta zabal azaltzen da Azpillaga-Lopategi bikotearen bertsozko ibilbide arrakastatsua, biografoaren beraren luman, bertso-kontuetan adituak diran beste hainbaten aipamen labur nahiz luzeetan, edo protagonista bien ahozko kontaketatik libururako eginiko transkripzioetan. Pasarte batzuk *Karmel* aldizkariaren orrialdeetara aldatuko ditugu. Izan be, biak plazaz plaza kantu-lagun ibili ziranekoak zerikusi handia izan dau hareen bizitzan eta herri



Galarreta pilota lekuan 1977an, Lopategi eta Azpillaga ikurrin legegatu berriari kantatzen

bertsozalearen bizi-tzan. Herriak hori behar eta eskatzen eban eta hareek herriari behar ebana emoten jakin eben, sasoian sasoikoa eta behar zana. Hona haren biografiatik hartuta, Abel Muniategiren lekukotasuna, hari-harira datorrena:

Artean Basarri eta Uztapide ziran bikote ofiziala. Honeek bertsolaritzari eutsi eutsen; maila horretan zabaldu eben; bertsolaritzak iraun egin eban ha-

reei esker eta ez da gitxi... Beste honeek, bertsolaritzaren momentu hori hartuko dabe, eta momentu hori adieraziko dabe euren bertsuetan. Zerbait esan beharra egoan, giroak hori eskatzen ebalako. Berpiztealdi bizia izango da jendearen kontzientziazatze-mailan; hori gizartean argi-argi somatzen da eta Azpillaga eta Lopategik hori guztia inork baino hobeto hausnartu, eurenganatu eta bertsotan kantatuko dabe. Horretan eginkizun handia izango dabe eta eragin aparta gazteriarengan. Nik uste dot, garai haretan egiten ziran bertso-saioetan ia derrigorrezko bihurtu zirala Azpillaga eta Lopategi, buztarri edo bikote barri moduan. Uztapide eta Basarriren ostean, hareek izango dira bertsolari tipikoak, gazteriarene idoloak. Gaurko ikuspegitik garbi esan geinke, politika aldetik, kosta

abala kosta, hutsune handi bat bete ebela. Lebenago ez egoan partidu politikorik; inork ez eban ezer esaten; elizgizon batzuk bai zeozertxu... Azpillaga eta Lopategik euren inguruan jazo-ten zana, herri honen egoera kantatu eben. Bertsolariak ezin leike hori alde batera itzi eta horri ez-ikusi egin. Gaur egu-nean sarri entzuten da bertsolariaren arloa ez dala hori; nik, oster, bizitzaren arlo guztiak dituala kantagai esango neuke, sasoian sasoikoa batez be; eta garai haretan behar-beha-rrezkoa zala.

Jonek berak be agertzen dau arrakasta eta erakarpen ho-rren gakoetariko bat, beti be bere ustez, *nemo judex in propia causa* esaten baita lege eta latin ingurumarietan. Bere bizian izan zituan ogibideetatik bigarrena, Jose Mari Arregi “Altzu” berriatuarrarekin batera, pentsu-saltzea izan zan. Bizkai guztian zehar herririk herri asko ibili ziran eta hilean behin edo Gipuzkoara be egin ohi eben egun osoko joan-etorria.



Lopategi, Mattin, Xalbador, Mitxelena eta Garmendia

Ogibide hori, ordutegia eratzeko askatasunagaitik eta jendea-rekin izan ohi zituen hartu-emon eta ezagutzagaitik, ezin hobeto etortzen ei jakon bertso-gordailua aberasteko eta herri euskaldunaren ardurak, kezka ametsak ezagutu eta bertsotan adierazteko. Holan, haren bertsoak ez ziran airera edonora jaurtiriko kolpe hutsalak, bertso-arteaz eta doinuz jantzirik, herri honen unean uneko kezka eta galderei emoniko erantzun bete-beteak baino. Hau idazten genduan haren biografian:

“Hau izan zan Jon Lopategiren laneko bigarren esperientzia luzea. Ordutegi aldetik bere bertsolari-zereginerako lanbide horretan izan zituan erraztasunak aitatu deuskuz; beste alde on batzuk be bazituan lanbide honek, behin baino sarriago entzun deusagunez: hartu-emon ugari izateko abagunea. Euskaldunekin ziran gehienbat hartu-emon horreek; alde askotako euskera entzun eiketan, hainbeste esaera eta pasadizo; herri txikietako kezka, arazoak eta abar. Horregaitik, herri-herriko gaiez barrua ondo beterik ebala joan ohi zan Muxikako bertsolaria plazetara. Beraz, ez da harritzekoa haren mezua herriarentzat hain gogokoa, hain betea eta hain aberatsa izatea. Herritarrak euren kezken erantzun zorrotz eta ego-kia somatzen eben haren bertsoetan. Bere joan-etorrietan jendearen ahotik prosaz jasotakoa, bertsoz eta arteaz jantzirik herriari berari bihurtzen ezin hobeto ekian.

Hau guztiau kontuan harturik, baleiteke garai hauxe izatea Jon Lopategiren bertsotako onena eta aberatsena. Egin-egin-ean be, Jon Azpillagarekin bikotea eginaz, batera eta bestera gure eskubideen mandatari ibili zan garaia be hauxe da. Jon Lopategi bertsolaria garai horretan agertzen jakula, beharbada, indartsuen esan nahi dogu. Bertsolari zan aldetik bere nortasuna, ziur asko, orduantxe agertzen ebala distiratsuen. Bizkaiko bertsolaritza gorengo mailara jaso dauanetariko bat, ezbairik barik, Muxikako bertsolari hau izan dogu, baina askoren eritxiz –eta neure burua be honeen artean sartzen dot–

etekinik onenak Bizkaiko bertsolaritzarako azken aldian lortu ditu, jo eta ke harrobia lantzen jardun dauanean” (158. or.).

Azpillaga-Lopategi bikote honen testuinguru eta ingurumaria ezaguna da; askok jardun izan dabe ingurumari horretaz; nik neuk be behin baino gehiagotan jo dot *Karmel* aldizkarian, abaguneak eskaturik, 1960ko euskal pizkunde barriaz, esaterako, *Josanton Artze poeta usurbildarra, pentsamendu eta hitz-jokoen zizelkaria* idatzi nebanean. Orain, Jon Lopategi joan jakunean, era-erara dator eta barriro egingo dot sartu-urtentxua *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* liburuan:

“Euskal Herriko bertsolarien artean bikote ospetsuak izan dira hainbat garaitan. Guztion gogotan dago Iparraldeko bikotea, Xalbadorrek eta Mattinek osotzen ebena. Bata bestearen osagarri. Mattin, irribarrez eta umorez entzuleari barnean kili-kili gozoa egin ohi eutsana; Xalbador, barnealde aberats haretatik pentsamendurik jantzien eta loratuenak ateraten ekiana. Bat-batean historiako ahapaldirik zoragarrienak kantatzeko gaitasuna eban bertsolari olerkaria. Gorputzez eta aurpegie-



Basarri, Lopategi, Arozamena eta Mitxelena

raz be alkarren osagarri; bata, txikia, potoloa, aurpegiera argi irrisua agertzen ebana; bestea, luzea eta argala, aurpegi serio-duna. Bikote hau oso berezia zan eta haren hutsunea gerora be ez zala bete esan daiteke. Hegoaldean izan eban, bidezko zanez, bere jokalekua.

Beste bikote gogoangarria Basarrik eta Uztapidek osoturikoa zan. Bertsolari handiak biak; garai baten, Gipuzkoako plazetan batez be, ezin baztertuzko bikotea. Gerra osteko urteetan, hirurogeiko hamarkadara arte behintzat, tradiziozko bertsozaleen gogokoenak izango ziran. Txapelketetan epaileen baheak hautatzen ditu onenak edo ustez onenak diranak, baina plazetarako, herriak berak hautatzen eta, sarri askotan, buztartzen ditu bertsolariak. Era horretara, Basarrik eta Uztapidek be, ziur asko ustekabean buztarri berean ikusiko zituen euren buruak... Alka-



regaz arakatu zituen Euskal Herriko plaza ugari eta bertsolaritzaren histori atal garrantzitsua bete eben. Garai haretan bertsolari eskolatuak eta eskolabakoak bereizten ziran eta Basarri eta Uztapide be halantxe ziran herriaren eritxian. Egia esan, Uztapide ez zan askok uste eben baizen eskolabakoa; ez, behintzat, aurreko belaunaldietako Txirrita, Pello Errota, Udarregi eta abarren erakoa. Basarri, kontrastea bilatzearren-edo, kultura handiko eta eskolaz jantziriko gizontzat hartua izan da, baina ez ei zan halakoa, irakurle handia eta autodidakta saiatua baino... Izaeraz, Basarri tenteago, burueritxiago agertzen zala esaten da-be; Uztapide, ostera, gizon apala zan; herri-herrikoa, jatorra. Biak bertsolari apartak eta jendearen gogo-gogokoak izan arren, zestoarra herriak bereagotzat ebala esan geinke. Jakina, bikote honeetan alkarren osagarri izatea bilatzen dau herriak eta, hortik, bataren eta bestearen irudia berez dan baino markatuago egin nahia. Basarrik eta Uztapidek baekien tentuz jokatu beharra egoala. Bertsolarien jarduna gerratean etenda ikusi eben; gerra ostean eragotzita. Erdi ezkutuan, zer esaten eben eta noren aurrean esaten eben kontuak atera behar... Baina herriaren egarri hori zelan edo halan asetzen ahalegindu ziran. Herriak harenganako esker onez gogoratuko ditu urte luzeetan.

Hirugarren bikote ospetsua gure Jon Lopategik eta Jon Azpillagak osotu ebena da. Hirurogeiko hamarkadak aurrera egin ahala hasi zan indartsu bikote hau. Sasoian sasoikoa esan ohi da. Bizkaiko bikote hau beharren zan garaian agertu zan Euskal Herriko plazetan. Joan Dorronsorok uhin barriaren sorreraz eta gizarte-aldaketaz idazten dau, baina aurreko belau-naldiaz dihardu itxura baten:

Baina egoera sozio-kultural orokorrari beldu beharko genioke aurrenik. Alegia, bitartean ETA sortu da, ikastolen mugimendua hasten edo dabil. Joanes XXIII.aren eta Kontzilioaren garaia da, Elizan batez ere aldakuntza handiak nabari dira, horrek asko esan nahi du frankismoan eta Euskal Herrian ere, Kennedy, Khrushchev, etab., egoera optimista bat



1987an Araba-Bizkaiako txapelketan txapela jantzi ondoren

dago, indarberritu nabi bat, eta hor sartzen da lehenengo txapelketa honetako giroa. Bestalde 35etik zetorren uhin berri bura orduantxe dago sasoi bete-betean, berrogei urte inguruan, onenean daude eta hamarkada honetan bultzada izugarria emango diote bertsolaritzari, 60tik hasita¹.

¹ Joan Dorronsoro, *Bertsolaritza modernoaren bideak*, Jakin 1987 (44.zk.) 17. or.

Mendebaldeko gizartean eta, guri jagokunez, euskal gizartean barritze ageri-agerikoa jazo zan. Arlo guztietan nabari zan hori, baina arteetan, beharbada, besteetan baino biziago, koloretsuago. “Ez dok hamahiru” taldearen eta euskal kanta barriaren hasierak ziran; pintore eta eskultore handiak, poetak, idazleak... Loratze harrigarria somatzen zan. Politikan, gazteri barriak hartu eban herrigintzako zuzia, gerratearen esperientzia latza izan ebenen eskuetatik. Abertzaletasun giroa pil-pil eta gori-gori egoan. Euskal gazteria oso indartsu eta ausart. Askotariko ideologia erne zan gure baratzean eta bakotxa bere lekua hartuaz joian Espainiako diktadore zaharra aienatzen zanerako. Abertzale eta euskaltzaleen indarra somatzen zan beste guztien gainetik. Giro honetan, bertsolaritzan be ahots eta mezu barriaren egarriz egoan herria... Aurreko belaunaldikoak egin eben euren. Basarri-Uztapide bikoteak bete eban bere egitekoa. Ordurako agortu antzean egoan hareen mezua, zaharkitua hareen estiloa... Azpillaga eta Lopategi agertzen dira Euskal Herriko plazetan; oso indartsu, agertu be. Bertsolaritzaren tradiziozko moldea garai barrietara egokitzen ezin hobeto asmatu dabe. Garaiak eta gizarteak eskatzen ebanez, mezu soziala, politikoa, abertzalea dakarre. Abertzale jendeen bihotza ikutzen dakie... Edozein jai, batzar, kultur aste etab. atxakia ona izan ohi zan bertsolarien artean ahots mai teenak entzuteko. Beste batzuetan, talde barrien kantaldietan sarri izan ohi eben lekutxu bat; hasieran, erdian eta amaieran. Entzuleen gogoak gori-gori egozala, benetako manifestazio bihurtzen ziran jaialdi honeek. Azpillaga-Lopategi bikote hau, abertzale-su horren hauspo indartsu ziran diktadurapeko garai ilun eta era berean itxaropentsu haretan.

Eta hasi baziran hasi ziran; ez ziran pixka baten geratuko, euskal gizartean giroa barriro aldatu arte. Herriak eraginda sartu ziran bide horretan eta Euskal Herri osoa arakatu eben. Herririk herri misiolari, erlijio-irudia erabili az, esan ohi dabe-

nez. Gipuzkoako Goierri aldean eben ingururik gogokoena. Han sortu ohi eben sintoniarik onena” (159-162. or.).

Eskolarik eskola hazia ereiten

Bertso-mintegiak. Kiroletan *harrobia* esaten da, baina nahia-go dot hemen ortuaren, mintegiaren, irudia erabiltzea. Jonek egin eban lana adierazteko egokiagoa da, gozoagoa. Lurra ondo ongarritu eta landu ondoren, hazia ereitea dator eta umeengan ereiten danak bere sasoian beti dakar loraldia eta fruitua.

Hor egin izan dan lana harrigarria da. Ereiniko hazitik guri-guri erne dira landare barriak; ia ezerezetik sortu da etorkizuna bermatzeko ingurumari joria. Bizkaiko bertsolaritzan ametszkoa dirudien pizkundera izan da maisu on, saiatu eta ekintzaile baten eskutik.

Aurreko pasarteetan legez, *Jon Lopategi*, bertsozko *mezularrira* jo neikean, harako giltza eta sartu-urtena esku-eskura dodalako, baina oraingoan nahiago dot gomuta pertsonalagoez baliatzea. Gomuta-kutxa horretatik, gauza zahar eta barriak aterako ditut, eskoletako gai honi jagokozanak. Eta lehenik, barri-barria:

Noizean behin elkartzen ginan Larreako *Propi* Jatetxean bost lagun: Jose Antonio Aranburu “Natxi”, Andres Osa “Sakona”, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Jon Lopategi eta ni neu. Elkar ikusi, elkarrekin bazkaldu, kontu batzuk esan eta poz-pozik bihurtzen ginan etxera. Azkeneko bazkari-eguna, abenduko egun baten izatekoa, egin zan, baina nik, ez dakit zer zala-eta, ez neban joaterik izan. Gero, otsailaren 7an barri tristetza zabaldu zanean, oraindino samin handiagoa izan neban abenduko bazkari haretara huts egin eta azkenekoz ha ikusteko erarik izan ez nebalako. Geroago jakin neban, bera be, ordurako gaixorik, ez zala izan bazkari haretan.

Aurreko gure bazkari edo elkartzea lau edo bost hilabete aurretik izango zan; han agertzen jakun beti bakoitzarentzat oparitu batekin, Gernikako *hori-baltzak* gozokiekin, eta egun horretan be bai. Egun horretako kontuak, “Sakonak” gozo eta bizi kontatuak, aberatsak izan ziran, nire ustez. Jon Lopategi Bizkaiko ikastola eta eskoletan bertsolaritza emoteko izendatua izan zaneakoak azaldu zituan “Sakonak”; berak be izendapen haretan eragina izan ebanez, ez da harritzekoa zertzelada biziz eta barru-barrutik kontatzea. Diktadura ostean, Karlos Garaikoetxea zan Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria eta sailburuetariko bat, Kulturako Sailburua, Pedro Migel Etxenike fisikaria. Honek, bertsozalea izanik, bertsolaritza eskoletan ate nagusitik sartzea erabaki eban. Bidezko danez, une haretan hezkuntzan zebiltzan eskarmentu handiko lagunengana jo eban aholku bila. Andres Osa “Sakona” izango zan horreetariko bat, erabakigarria kasu honetan.



1987an Araba-Bizkaiko txapelketan epaileak: Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Abel Muniategi, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Trino Azkoitia eta Eusebio Osa

Et Xenikeren buruan Bizkaiko beste bertsolari bat zan aukeratu; bertsolari handia, jator-jatorra eta maitatua, baina zeregin horretarako ez zana. “Sakonak” sartu eutsan buruan, horretarako aukera-aukerakoa Jon Lopategi zala. Harturiko bidean inoiz atzera egingo ez ebana, saiatua, inor izatekotan; ume eta gaztetxoan erlategi burrunbari irakinean sartzeko moduko gizona; horretarako izaera eta aldartea zituana. Pazientzia eta tentua be beharko ziran langintza horretan.

Denbora izango zala testigu inotsan “Sakonak” Et Xenikeri, eta haren esanera jarri zan Sailburua. Geroago, fruituak ikusita, bete-betea asmatu ebala eta, zorionak emon eutsazan eta poz-pezik egoan Et Xenike jauna. Kontaketa hau nik atseginenez entzun neban, zertzelada hareek ezagutzen ez nitualako. Jonnek berak be poz-pezik entzungo eban; bihotz-altxagarri izango jakola zalantzarik ez. Guk geuk jakin barik, baina “Sakona”ri esker batez be, Joni eginiko aitoren eta omenaldi-txu bihurtu zan gure azken bazkari hori.

Beste gomuta xume batzuk be badituz: Ni Mesedetako Bera-Kruz Ikastolako maisua nintzan eta, ohiko irakasgaiez gainera, bertsoen lilura umeen bihotzean sartzen ahalegintzen nintzan. Esaterako, Amurizak Euskal Herriko lehenengo txapela lortu ebanean, final haretako bertso batzuk buruz ikasi zituen nire taldeko hainbatek. Gogoan dot Aitor Elexpuru, Joanjo Elordi eta Iñigo Ibarra (“Ander Lipus”) bero-bero ebiltzala eta, nire bultzadaren eraginez-edo, gauetan “Buztarri” (Erlatx) bertsolariarekin eta Zabala Amulategikorekin Karmenen elkartzen hasi zirala, gehiago ikasteko. Urte bat edo bi geroago, Erdiko Zikloa esaten jakonean niri neskato-mutiko argiak eta jator-jatorrak egokitu jatazan. Beste ikasgaietan aurrera eginez gainera, taldeko hainbat ume zeharo bertsozaletu ziran.

Behin, Markina-Xemeinen euskararen eguna-edo ospatzen zan; umeentzat eta umeak partaide zirala, hainbat ekintza eratu ziran. Ordurako Jon Lopategi eskoletan bertsolaritza sartze-

ko izendaturik egoan eta batera eta bestera ebilen gauzak pixka bat prestatzen eta lehendik zer egoan ikusten. Egun horretarako, bertso-saio bat prestatu neban umeekin, hareek jende aurrean holtza gainetik kantatzeko. Bertsolarien saioa imitatuz: hasierako agurra, lau oinak emonda, ofiziotan, puntuka, azkeneko agurra etab. Jaialdi osoa txukun idatzi eta buruz ondo ikasirik joan ziran gora. Arrakasta itzela; oraindino entzuten nagoela dirudi hango txalo-zaparrada.

Entzule ugari eta haren artean aurre-aurrean, hitzik galdu barik, Jon Lopategi eta Abel Muniategi. Egundoko poza hartuko ebela uste dot. Izan be, hunkigarria izan behar halakoentzat ustekabean entzun eben bertso-jarduna; umeak, gainera, euren akats eta guzti, aparteko grazia izaten dabena ezin ukatu!



Epaileetarikoa biru Jon Lopategi txapeldunarekin Arriaga Antzokiko eskaileretan

Jon Lopategi, han eta hemen, eskoletan bere laguntzaileak izango ziranen sarea osotuz joian. Eta ezin hobeto zaintzen zituan laguntzaileak. Astero-astero etortzen zan nigana eta elkarrekin bazkaltzen genduan Etxano jatetxean; noiz edo behin baita Iruzubietako Armolan eta Etxebarriko beste jatetxe baten be. Nirea berak ordaintzen eban beti. Hara etortzen jakozan bat-batean trebatzen hasita egozan gaztetxu batzuk, gero eskoletara joateko. Alfa-Romeo markako auto bat eukan eta han erabiltzen zituan gaztetxuak bertsotan egiteko. Ospetsu bihurtu zan auto ha eta milaka anekdota kontatzen ditue orduan ume izan ziranak...

Behin, otsailaren 3an jo eustan Karmenen atea. Ordurako ni irakasle-lana utzita, "Bostak bat" Lantaldean *Adorez* bildumako hiztegietan nenbilen. Eguena zan. Abadiñoko feria ospetsura joan behar genduala biok. Nik hasieran ezetz; lotsa nintzala ni holako lekuetan agertzen...! Berak baietz, asaskatzeko eta kontuak kontatzeko, ondo jatorkula hara osteratxu bat egitea; egin-eginean be, sasoi haretan biografia idazten ni-harduan eta hainbat kontu grabaturik nituan neure magneto-fonoan. Abadiñorantz urten aurretik, Markina-Xemeinen be eguenetan azoka izaten da-eta, zelai inguruan ibili ginan. Go-goan dot zertzeladatxu bat; ni erlijiosoa eta abadea izan arren, etsenplu ederra emon eustan. Han, zelaiaren biran egozan jarrita saltokiak, eta baztertxu baten narruzko gauzak, diru-poltsatxuak, giltzatakoak, erlojuak... saltzen zituan marokoar beltzaran txiro bat. Diru-poltsa edo txanpon-poltsa txiki bat erosi eutsan eta saltzaileak eskatu eutsan baino bi bider gehiago ordaindu eutsan. Lagundu egin behar jake honeei, giza-jook ez dauke ezer-eta -esan eustan.

Azken gauzatxuak

Muxikako bertsolariak oinarrizko gauzatxu batzuk, sartu-sartuak zituanak, askotan errepikatzen zituan, besteentzat be

baliagarri izango ziralakoan; esaterako, bertsolariak jendau-
rrean ez daukara kikildu behar, paparra aterata eta gartsu kan-
tatu behar dauka, baina beti be norbere gabeziak erakutsi
barik. Zerbait gertatzen zenerako, euskarriak edo zeri hel-
duak izan behar zituala, une txarra inork igarri barik disimu-
luan igaro ahal izateko. Hori aurreko eta bakarreko tre-
bakuntzaz lortzen zala; bertsotako eskarmentu luze eta han-
diaz batez be.

Kantaerari garrantzi handia emoten eutsan. Maite eban za-
har kutsuko kantaera erromantikoa, gregoriano airekoa; Xal-
badorren eta zuberotar kantarien tristura-tanta. Askotan en-
tzuten neutsan hau, batzuk kantari legez kantatzen zituela
bertsoak eta ez bertsolari legez. Zer da *bertsolari legez kan-
tatzea*? Hori gauza lauso samarra da. Niri Amurizak *Menditik
mundura* liburuan, Xalbadorren ahotsaz dinoana etorri jat
gogora:

*Zure abotsa oihan barneko
lur eta sustraiz egina
gogarazten dit haritz orpoan
ebortzi nuen arima
Hego Iparrek menderik mende
bilduriko giza mina
zure mintzoak kantatu digu
odolean irakina
ilunabarrak gorde dezala
zure oroimen samina.*

Amurizak Xalbadorrez idatziriko bertso hau eta gainerakoak
barru-barruan sartu jatazan. Hau ez da bortsoa bakarrik, hau
poesia be bada. Egin-eginean be, Amurizak aipaturiko *Berriako*
elkarrizketan hau dino Jon Lopategiren kantaeraz:

– *Kantaera ere berezia zuen.*

– Oso berezia. Halako tonu imprezioa zuen: ez zuen desafinatzen, baina kantaera imitaezin bat zeukan. Transmittitzen zuen zerbait berezia; karisma izugarria zuen.

Azkenik, hau esango dogu amaitzeko: Nik bihotz-bihotzez idatzi neban Jon Lopategiren biografia. Maite dot liburu hori, baina askok, Jonek berak bere biografia idatzi ez izanaren pena agertu izan dabe. Adolfo Arejitak *Deiako* idazlanean hau idatzi eban:

Jon Lopategi berari behin baino sarriago esan nion, bere buruz, bere lumaz idatzi behar zukeela bere biografiaz eta bertsogintzaz gehiago. Horren penatan egon naiz luzaroan, harik eta ezina nagusitu den arte.

Beste batzuei be entzun deutset kexa hori eta niri neuri be geratu jatan barruan samin antzeko zer edo zer, ni atzetxuan edo albo batera geraturik, berari aurre-aurrean leku egin ba-neutsa... Baina, baleko eta balitz elkarren atzean dabiltz. Joan-dako urak dira.

Agur, Jon, egun handira arte! Baina agur hau luzatu beharrez, zuk euskarari jarriko antzinako bertso gozo batez amaituko dogu:

*Amona xartzat zaukazen oiei
ez eiezu egin kasu,
dontzellatxo bat ziñaken eran
maitemindua naukazu,
zazpi orridun lore usañen
lillura sartu deustazu,
udabarri bat billatzen dogun
maite bi gara ni ta zu.*

Luis Baraiazarra Txertudi